

## ¿ZERTAKO...?

(POESIA PREMIADA CON EL MAKILLA Y UNA ONZA DE ORO

EN EL CERTAMEN LITERARIO DE MARQUINA.)

Baserricho batean  
 Bizi naiz chit pozik,  
 Samintasun, naigabe,  
 Miñik gabetanik.  
 Dauzkat zelaiyak lore  
 Pollitez jantzirik;  
 Zugaztiyak, inchaurrez,  
 Gaztañaz ornirik;  
 Soroak, artoz, gariz,  
 Alortaz<sup>1</sup> beterik,  
 Beren ertzetik doan  
 Ybaiyak bustirik,  
 Iturri garbiyaren  
 Urak naroturik.<sup>2</sup>  
 Goizean chorichoen  
 Kankak esnaturik,  
 Jauna bedeinkatutzen  
 Joaten naiz echetik  
 Sorora, non lanean  
 Eguna pasarik,  
 Sentitzen ez det nigan  
 Kezka mingarririk.  
 Ez dator oneraño  
 Munduko soñurik:  
 Ibai leyarduaren<sup>3</sup>  
 Murmura bakarrik.  
 Emengo gauz ederrak

Naukate zurturik,  
 Esaneskisunezko,  
 Gozaroz beterik.  
 Beraz ¿zertako nai det  
 Nik urre zillarrrik,  
 Baldin ongi banago  
 Berak gabetanik?  
 ¿Zertako, nai det—diot—  
 Orrelako gauzik,  
 Asko gizon badaude  
 Berekin tristerik,  
 Beti samintasunez,  
 Beti penaturik  
 Beti miñen azpiyan  
 Biyotza lerturik?  
 ¿Zertako zertako det  
 Aberastea nik,  
 Baldin ez bazait kentzen,  
 Ea gozatzen gaitzik!  
 ¿Zertako lagako det  
 Baserri gozorik,  
 Zelai miragarri ta  
 Baso gozatsurik?  
 Agur, urre-zillarrak,  
 Aldendu nigandik,  
 Mendiyan bizi nai det  
 Jauna doandirik.<sup>4</sup>

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

---

(1) Fruto.—(2) Fecundar.—(3) *Leyarduna*. Cristalino.—(4) *Doanditu*. Alabar.